





**BEGOÑAKO
ANDRA MARIARI
BEDERATZIURRENA**

ZER ETA ZERTARAKO

Israel Erriak, basamortuan zear, suzko abe bat izan eban gauetz zuzendari: Kontzilioak diñoskunez, abe |orrexen antzekoa da Andra Maria Eleizearentzat.

Gaurko egunok ez dira gozoak. Baiña gure aldi onetako goraberok geure |fedearz argiago jabetzera eta Barri Onari zintzoago jarraitzera eroan bear gaitue.

Eta, zera illunduten daben ainbeste odei baltzen artean, Maria dogu zeruko izar argia, "itxaropen eta pozaren ezau-garria": Beronegana jaso bear doguz gure begiak.

Beronek erakutsiko |deusku, argi ta garbi, Jaungoikoak gure alde egin nai dauana, "Jaungoikoak Beragana zabaltzen diranei egin gura deusena, Beragana oso-osorik zabaldu izan zan izaki bakarragan egin davan guztia".

Orrialdeok gauza bat lortu gura dabe: geroago |ta kristi-ñaugo izaten, gizonen eta munduaren serbitzari geroago ta maitasun gartsuagoz izaten guztioi laguntzea.

Begoñako Andra Mariak, Jaungoikoaren Ama maiteak, lagundu deigula guztioi, Ebanjelioaren poz neurribakoa geure bizitzan barritzuten.

Begoñan, 1972 garren abuztuan.

NIHIL OBSTAT

José María Revilla pbro.
Censor Ecco.

I M P R I M A T U R

Dr. León María Martínez
Vicario General

**MANTEROLA'TAR GABIRE'LEK
EUSKERATUA**

MARIA JAUNGOIKOAREN ERRIAREN ITXAROPENEAN

Gure burruka ta neke-lorren erdian, gizonok zetan ipinten dogu gure itxaropena? Aurrera jarraitzeko, zer ala nor da gure eutsigarri?

Jaungoikoaren Erriak gizaldiak-zear, gizonai eta munduari Jaunaren Salbamena ekarriko eutson Salbatzalleari itxaroten egon zan.

Aldien osotasuna eldu zanean, emakume batek, Maria'k, Jaungoikoaren itza ontzat artu eban. Eta Jaunaren eskin-tzariak ta gizonen itxaropenak bete al izan ziran.

Ordutik ona, dana aldatu da; baña ondiño be itxaropenagaz bizi bear dogu, Eleiza bidezti da, ta ezarri dauskuen zeregiña ez da amaitu.

Eskari-Deia

Zure babespean jarten gara, Begoña'ko Jaungoikoaren Ama
[deuna,
Bearrizanean dagozan zeure semeen eskariak entzun egizuz,
eta galbide guztietatik jagon gagizuz.
O, Birjiña aintzatsu ta zorioneko orrek!

Jaungoikoaren Itza

Bake, zuzentasun eta salbamenaren egarriz egoan Israel'ek Jaungoikoagan eukon ustearen argia biztuta zaindu eban. Igarleak agindu eutsoen Argia izango zan Salbatzalle baten etorrerea. Eta etorkizuna emaitz garaitza bat lez agertzen zan.

Isaias Igarlearena, IX-1-6 a:

«Illunetan ebillen erriak argi andi bat ikusi eban;
kerizpetako lurretan bizi ziranei argi bat sortu jaken.
Alaitasuna geitu dozu eta poza geiagotu;
eta or dabiltz pozez zure aurrean igitaldian lez,
arrapakiak banantzean poztuten diran lez.
Aputu dozuz ba, buzterri astuna, aren bizker-zigorra,
eta zapaltzallearen makillea Madian'en egunean lez.

Ume bat jaio jaku ba, seme bat emon jaku;
sorbaldan nagusitza dakar, eta bere izena: Onulari arrigarria,
Jaungoiko azkarra, Betiko Aita, Nagusi Bakezalea.

Bere nagusitza zabaldu ta David'en jarleku edo aulkian eta bere
errian, azkenbako bakea jarri dagian,
zuzen eta bidez gaurgandik eta betiko sendotuta.

Jaunaren ardura gartsuak egingo danori.»

*Batikano'ko II'gn Eleiz-Batzar Nagusiak, Eleizeatzaz emon eban
Agiritik: 55'gn z.*

*Jesus, Maria'ren Semeak asierea emon eutson agintzari
guztiak beteko ziran aldiari. Arrezkero eta betiko, ez gagoz
bakarrik gure amesak eta itxaropenak bete bear doguza-
nean. Kristo geugaz dago.*

«Itun Zar eta Barriko idazkietan Salbameneko edesti edo his-
toria azaltzen da. Eta bertan geldiro geldiro, Jesu-Kristo'ren
mundura etorrerea gertatzen da. Lenengo agiri oneik, (...) Sal-
batzallearen Ama izango zan emakumearen irudia. Gero ta ar-
giagoan ipinten dauskue.

Argi onetan, aurretik antz-emonda emakume au agertzen jaku,
sugearen gain lortu eban garaitzaren agintzan, gure lenengo gu-
rasoak egin eben pekatuen ostean (ikusi Gen III-15 (...)) Beragan,
Sion'go Alaba goragarrian luzaroan itxaron ostean, aldien osota-
suna bete ta Lege Barria asi zan, Jaungoikoaren Semeak bera-
gandik gizon izatea artu ebanean, gizona pekatutik aterateko,
bere aragiaren misterioen bidez.»

Itzari erantzuna

Eskariak:

Eleizaren alde:

Gizon guztietara eroan dagian azkatasun eta salbame-
naren itxaropen eta poza.

Gure aldi onetako apostoluen alde:

mundu au zuzen eta anaikorrago egiteko alegiñetan
gogaitu ez daitezkan.

Nekepean dagozanen alde:

euren samintasun eta bakartasunean Jaungoikoa au-
rrean aurkitez poztu daitezkan.

Guztion alde:

Maria'ren ikasbideai jarraituaz, Jesus'en gizonak sal-
bauko dituan itxaropen osoa euki dagigun.

Otoia:

Jaungoiko alguztiduna:

Zuk indartu zendun Israel'go erriaren itxaropena salbamenaren eskintzagaz; eta aldian osotasuna eldu zanean, itxaropen au bete zendun, Maria Birjiñagandik jaiota mundura zeure Semea bilduaz.

Egizu, arren!, salbamenaren ondorenak geuragandu dagiguzala ta zeruko zoriona zeugaz batera izan dagigula. Jesu-Kristo gure Jaunaren bidez. Amen.

Kristiñau-bizitzako erabagia:

Igusi barik ibiltea gatxa da.

Orixen da gure ziñestegaz irabazten doguna.

Jaungoikoaren eskua gure bizitzan ikusten alegintzeko bizi gaitezaz.

Andra Maria'ri geure burua opaltzea

Begoña'ko Birjiña! Andere ta gure Ama!

ni osoan eskintzen niaitzu;

eta neure semekoi maitasuna agertzeko,

egun onetan neure begi, neure belarri,

neure min ta neure biotza, eskintzen dautzudaz,

itz baten neure izate guztia.

Zeurea nazan ezkerre., Ama on orrek, zeure gauza lez, zaindu ta aldeztu nagizu.



Erabagigai astunez beteriko gurea lango mundu baten, benetako erabagigai edo auzia auxe da: Geure artean dagon Itxaropenari, Jesus'eri begiak ez zabaltzea.

Jaungoikoa Maitasuna da. Eta Jaungoikoaren Eskutapen edo Misterio ori Kristo'gan gizonarentzat urrago egin da. Beragan gauza guztiak artzen dabe euren balio ta euren esan gurea. Kristo da gure Itxaropena; Bera da bidezti lez egiten dogun ibillaldiaren elburua.

Maria'gan Jaungoikoak ziñestea ta gertakizuna aurkitu ebazan. Bere bitartez gizon egin zan, mundu onetan beinbetiko agerkundeari asierea emonaz.

Eskari-Deia

Zure babespean jarten gara, Begoña'ko Jaungoikoaren Ama
[deuna,
Bearrizanean dagozan zeure semeen eskariak entzun egizuz,
eta galbide guztietatik jagon gagizuz.
O, Birjiña aintzatsu ta zorioneko orrek!

Jaungoikoaren Itza

Mundua ez da zentzungabea. Gizonen kondaira Kristo'k argitu dau, Kristo da Argia. Bere eriotza ta berbizkundera ezkerro, bizitzan gertatzen diran guztiak balio barri dau guretzat.

Kolosa'koai idazkitik, I, 12-20 a:

«Jaungoiko Aitari eskerrak emon daioguzan argi-erreñuan, santuen oñordeko-lagun izateko gai egin gaituelako, eta illunpetako menpetik atarata, bere seme kutunaren erreñura aldatu gaitualako, Seme onen odolean dogu erospena baita pekatuen parkamena be.

Berau da begiokaz ezin ikusi daikegun Jaungoikoaren irudia, irazandako guztien gain lensemea, zeruko ta lurreko gauza guztiak, ikusgarri ta ikusi ezin diranak, guztiak Beragan egiñak izan dira-ta. Aulki, Jaun, Nagusi ta Agintedunak; dana Berak eta Beretzat egiña da.

Diranak baño lenago da, ta diranak Aregan dagoz.
Bera da Eleizaren gorputzaren buru, Bera da asiera illen artetiko
lensemea, gauza guztietan lenen izateko.
Jaungoiko nai izan ba dana Aregan (Semeagan) batuta egon
zedin. Onen bitartez, bere gurutzeko odolaz bakeak egiñik,
gauza guztiak, lurrekoak eta zerukoak be, Beragaz adizkide-
tuteko».

*Batikano'ko II'gn Eleiz-Batzar Nagusiak, Eleizeatzaz emon eban
Agiritik, 56'gn atala*

*Eleizak egundo be ez dau itxi Maria goraldurik bere
Sorkunde Garbiaren Eskutukian. Jaungoikoak ez eban nai
Beragan izan zedin kerispe eta txarrentzat tokirik. [izan*

«Ez da arritzeko gauza Eleizako Gurasoak Jaungoikoaren Amari
aurrez deun eta ezertariko obena eta orban bakoa deitutea, eta
Espiritu Santuak eratutakoa lez izan zala, eta izaki barri bat egiña.
Bere Sorkundeko lenengo unetik, deuntasun berezi baten dirdir-
tasun bakarragaz aberaztua izan zalako, Nazaret'eko Birjiña Jaun-
goikoaren aginduz «graziaz betea» aingeruak agurtu eban. (Ik.
Lkl, 28)

Itzari erantzuna

Eskariak:

Eleizaren alde:

Jesus lez deun izan daiten, gizonen alde guztia emo-
teko gertu egon daiten.

Pekatari guztien alde:

Pekatuan bakez egon ez daitezana. Norberekeri ta geie-
gikeriaren aurka gogor egin bear dabela ikusi dagien.

Gizonen pekatuak dirala-ta miñez dagozanen alde,

euren burrukan ikusi dagien Jesus'ek pekatu ta eriotzea
azpiratu ebazala.

Guztion alde:

Maria'ren antzera geure bizia opatu dagigun, gizonen
arteko pekatu, zuzentasunnik eza ta gorrotoa kentzeko.

Otoia:

Zure Semearen etorrera Birjiña Sortzeztik Garbiaren bidez
gertau zendun Jaungoiko errukiorra,
arren! eskatzen dautzugu, zure Semearen eriotza ta ber-
bizkundearen bidez, orban guztitik garbi zaindu zendun
ezkero, geuri be emon daiskuzula bere bitartez,
Zugana biotz garbiagaz altzea.
Jesu-Kristo gure Jaunaren bidez. Amen.

Kristiñau bizitzako erabagia:

Maria'k Jaungoikoaren lege-bereziz ez eban euki pekaturik.
Guk burruka egin bearra daukogu txarrerako makurtasu-
nagaz jausi ez gaitezan.
Gure makurtasuna norberekeria da. Besteakaz gomutau
zaite.

Andra Maria'ri geure burua opaltzea

Begoña'ko Birjiña! Andere ta gure Ama!

ni osoan eskintzen niaitzu;
eta neure semekoi maitasuna agertzeko,
egun onetan neure begi, neure belarri,
neure min ta neure biotza, eskintzen dautzudaz,
itz baten neure izate guztia.

Zeurea nazan ezkero., Ama on orrek, zeure gauza lez,
zaindu ta aldeztu nagizu.



Gizonaren aukeramenagaitik «txarrak mundua ondatu eban, izadiaren edertasuna loituta gelditu zan. Baña gure abendatik jaio zan Bera, Jaungoikoaren Ama, eta garbi jaio be. Kristo'n indarra Beragan eragikorra izan zan. Arrezkero pekatua ez da munduan nagusi, garaitua izan dalako.

Eriotza, pekatu, miña... Maria'k ez eban pekaturik eza-gutu. Berak gu legez jasan eban, baña ez eban pekaturik egin. Txarraren indarrak ez eban Beragan eragipenik izan.

Jaungoikoaren maitasunaren mirari au ikusirik, goraldu dagigun Jaungoikoa eta Maria beti zintzo izan jakona».

Eskari-Deia

Zure babespean jarten gara, Begoña'ko Jaungoikoaren Ama
[deuna,
Berrizanean dagozan zeure semeen eskariak entzun egizuz,
eta galbide guztietatik jagon gagizuz.
O, Birjiña aintzatsu ta zorioneko orrek!

Jaungoikoaren Itza

Txarra munduan sartu unean bertan, Jaungoikoak salbatzea agindu eban. Agintza ori Maria'gan bete zan, Jesus'en amatzarako autua izan zalako. Bera da lenen gaizkatu edo salbaua izan zana.

Genesis edo Asiera'tik. 3'gn azalb. 9-15 a:

«Jaungoiko Jaunak gizonari dei egin eta esan eutson:

—Non zagoz?

—Eta erantzun eban:

—Zure abotsa baratzean entzunda billozik-nago-ta ostendu egin naz.

—Nok esan dautzu billozik zengozala? Erantzun eutson Jangoi-koak.

—Ez jateko agindu dautzudan zugatzetik jan egin dozu ala?

—Gizonak erantzun eutson: Nire laguntzat emon zeunstan ema-kumeak zugatzetik emon daust eta jan egin dot.

—Orduan Jainko Jaunak emakumeari esan eutson:

«Zelan egin dozu ori?»

—Emakumeak erantzun eutson: Sugeak atzipetu egin nau eta jan egin dot.

—Jainko Jaunak sugeari esan eutson: «Ori egin dozulako abere eta landako pizti guztien artean biraogarri izango zara, sabelez narrazka ibilliko zara, eta zure bizitzako egun guztietan autse jango dozu.

Eta zu ta emakumearen artean, eta zu ta aren ondorengoen artean areriotasuna ipiñiko dot, arek burua zapalduko dautzu eta aren orpoa ziztatuko dautsozu.»

Eleiz-Batzar Negusiaren, Eleizatzazko Agiritik. 52'gn a:

Jaungoikoaren itzaren eskutapena edestian sartu zan, eta eskerrak emakume bateri, Maria'ri, bete zan.

Bere zeregiña aztu egingo ete jaku? Eskerron eta maitasunez ez gara biurtuko Beragana?

«Jaungoikoak munduaren eroskundea egin gura ebanean «aldien osotasuna elduzanean bere Semea bialdu eban emakumeagandik jaioa... semetasuna izan artu gengian» (Gal, IV, 4-5). «Bera gu gizonokaitik eta gu salbatzearren Maria deunagandik Espiritu Santuaren bidez zerutik jatsi ta aragia artu eban».

Salbameneko eskutapen Jaungoikozko au Eleizan agertu ta jarraituten dau. Eleiza ba, Jaunak bere gorputz egin eban, eta bertan ziñestedunak euren Buru Kristo'gaz batuta, eta Deun guztien batasunean, lenen agurtu bear doguna Birjin beti zoriontsu Maria, Jaungoiko ta gure Jaun Jesu-Kristo'ren Ama da.»

Itzari erantzuna

Eskari-Otoiak:

Eleizaren alde:

Jesus'en gurariei zintzo jarraitu dagioen eta indar guztiakaz Ebanjelioa otseindu dagian.

Aginpidea dauken guztien alde,

gizartean, ekintzan, sendian, Jesus alde batera itxita anaitasuna lortuten alegindu ez daitezan.

Nekepean bizi diranen alde:

Maria'ren ikasbideari jarraituaz, samintasunean Jesus' ganako bidea aurkitu dagien.

Gu guztion alde,

Maria'ri dautsogun maitasunak Jesus'en antzeko egoe-
rak artzen eroan gagizala.

Otoia:

Jaungoiko algutidun eta betikoa:

zeure maitasunezko eskutapena Jesu-Kristo'ren bitar-
tez agertu dauskuzuna; zuzentzen dautzuguzan eskariak
entzun egizuz, Maria bitarteko artuta, eta geitu gudan
Berak irabazi dauskun Jaungoikoz'ko bizitza.

Jesu-Kristo gure Jaunaren bidez. Amen.

Kristiñau bizitzako erabagia:

Maria'ren anditasun guztia onerantxe dago: bere Seme
Jesus'entzako IZATEAN.

Egoera onek Jaungoikoagana geiago urreratuten gaitu.
Besteai laguntzeko gertu egoten alegindu gaitez.

Andra Maria'ri geure burua opaltzea

Begoña'ko Birjiña! Andere ta gure Ama!

ni osoan eskintzen niaitzu;

eta neure semekoi maitasuna agertzeko,

egun onetan neure begi, neure belarri,

neure min ta neure biotza, eskintzen dautzudaz,

itz baten neure izate guztia.

Zeurea nazan ezker., Ama on orrek, zeure gauza lez,
zaindu ta aldeztu nagizu.



Ez dago itandu bearrik: Jaungoikoa noz dator? Jaungoikoa etorri da, dator eta etorriko da. Jaungoikoa edestian sartu da, gizonen edestian.

Kristo'gan, gizon egindako Jaungoikoaren Itzean, Jaungoikoa urreratu egin yaku. Bere maitasunaren bitartez eta gizonen artean bere ontasunaz, Jaungoikoaren biotza eza-gutu dogu.

Ordutik ona, edestia (historia) ta egunoroko jazokuna, gu Beragaz aurkitzeko tokia izango da. Maria'ren antzera geuri jagoku geure bizitza aurrez eukitea, Jaungoikoaren argiak lurra bete dagian.

Eskari-Deia

Zure babespean jarten gara, Begoña'ko Jaungoikoaren Ama
[deuna,
Berrizanean dagozan zeure semeen eskariak entzun egizuz,
eta galbide guztietatik jagon gagizuz.
O, Birjiña aintzatsu ta zorioneko orrek!

Jaungoikoaren Itza

Itza, Jesus, 'ek irazan eban ta berak zuzentzen dau Aitaren altzoan izango daben betiko osotasunera. Dana dator Kristo'ren osotasunetik eta danak Beragana eroan bear gaitu.

Jon deunaren Goizparki edo Ebanjelistik. 1, 1-15 a.)

«Asieran Itza ba zan, eta Itza Jaungoikoagaz egoan
eta Itza Jaungoikoa zan.

Asieran Itza Jaungoikoagan egoan.

Dana Beragaitik (Itzagaitik) egin zan
eta Bera bagarik ez da egin egindakorik ezer.

Argiagan bizitza egoan,
eta bizitza gizonen argia zan.

Eta argia illunetan argi egiten dau,
eta illunak ez eban artu...

Itza egiazko argia zan,

mundu onetara datorren edozein gizakume
argitzen daben argia.

Mundura etorri eta munduan egoan,
eta mundua Berak egiña izan zan,
eta munduak ez eban ezagutu.

Bere etxera etorri ta bereak ez eben ondu artu.

Baña artu eben guztiei, barriz,

Aren izenagan ziñestu eben guztiei,

Jaungoikoaren seme egiteko

eskubidea emon eutsen.

Oneik ez dira odoletik jaio, ez aragi-guraritik

ez giza-guraritik Jaungoikoagandik baño;

Eta Itza aragi (gizon) egin zan,

eta bere bizilekua gure artean jarri, eban,

eta geuk ikusi dogu bere aintza,

Seme Bakarrari dagokionez Aitagandik artzen daben aintza
graziz ta egiz betea.»

Batikano'ko II'gn Eleiz-Batzar Nagusiaren Eleizeatzazko Ag̃iritik.
56, a.

*Azkatasun eta apaltasunez emakume batek Jaungoikoari
«BAI» esanaz, gizadiaren bizitza argi ta poztasunera zabal-
du eban. Maria ziñeste ta itxaropenaren eredu da. Maria'k
maitatzen bakarrik ekien.*

«Maria'k zerutik bialdutako aingeruari erantzuten dautso. «Ona
emen Jaunaren mirabea, egin bedi nigan zeuk diñozunez» (Luk. I,
38). Eta olan, Maria, Adan'en alabea, Jaunaren esana ontzat
artuta Jesus'en Ama egin zan, eta biotz zabalez eta pekatuaren
eragozpen barik, gizonak salbatzeko Jaungoikoak daukon guraria
aintzat artuta, bere burua, Jaunaren mirabe lez, osorik opatu
eutson bere Semeari eta ekarri eban arazoari. Olan Berreros-
kundeko eskutapenean lankide izan zan, Bere menpean eta Be-
ragaz, Jaungoiko alguztidunaren graziaz.»

Itzari erantzuna

Eskariak.

Eleizaren alde:

Jesus'en antzera, gizonen auzi ta erabagigaietan ardu-
ratu daiten.

Lurreko erri guztien alde,

Jesus dala salbatze ta anaitasunerako gizonak daukien
bide bakarra egiz ezagutu dagien.

Nekepean dagozanen alde,
euren samin-aldian, Jesus ta Berak emoten dautsien
indar-laguntza ikusi dagien.

Gu guztion alde,
Maria ta Jesus'en ikasbideai jarraituaz gure anai gizo-
nakaz gure auzi ta erabagigaietan eskuartu dagigun.

Otoia.

Jaungoiko alguztiduna,
Zeure Semearen bidez gizonai zure aintza agertu ta
bere bitartez gure salbamena egiztu dozuna.
Birjiña Maria'ren bitartez emon egiguzu, eroskunde
onen ondorenak, geure egiteakaz munduari agertu daio-
guzala.
Jesu-Kristo gure Jaunaren bidez. Amen.

Kristiñau-bizitzako Erabagia.

Jaungoikoaren Semea gizon egin zan gugandik urrago
egoteko.
Guk gizonakandik, euren ezbai eta neke-minetatik iges
egiten dogu...
Gaur besteakaz urrago biziten alegindu gaitezan.

Andra Maria'ri geure burua opaltzea

Begoña'ko Birjiña! Andere ta gure Ama!
ni osoan eskintzen niaitzu;
eta neure semekoi maitasuna agertzeko,
egun onetan neure begi, neure belarri,
neure min ta neure biotza, eskintzen dautzudaz,
itz baten neure izate guztia.
Zeurea nazan ezkeror., Ama on orrek, zeure gauza lez,
zaindu ta aldeztu nagizu.



JAUNGOIKOAREN SEMEAREN AMA

Amaika bider gizonok geure ustea ipiñi dogu, asetzeko gai ez jakuzan gauzetan!... eta azken baten utsik eta bakarrik aurkitu gara!

Jaungoikoa bakarrik da gai gure gogo-egarri ta gurari sakonerari erantzuteko. Jaungoikoaren Erriak olantxe ziñesten eban, eta orrexegaitik, Jaungoikoa nor zan eta gure Aita zala, gizonai irakatsiko eutsen Salbatzalleari itxaroten bizi izan zan. Eurak «Jaungoikoa geugaz» itxaroten eben.

Maria, erri oso baten ibillaldi luze baten azkena da. Berak ontzat artu eban «Jaungoikoa gugaz» bere sabelean gorputza artzea. Eta bere ziñesteagaitik Jainkoaren Semearen Ama egin zan.

Eskari-Deia

Zure babespean jarten gara, Begoña'ko Jaungoikoaren Ama
[deuna,

Bearrizanean dagozan zeure semeen eskariak entzun egizuz, eta galbide guztietatik jagon gagizuz.

O, Birjiña aintzatsu ta zorioneko orrek!

Jaungoikoaren Itza

Gizaldiak zear, Jaungoikoa, bere bein-betiko agerpena gertatzen ekin eutson. Eta Jaungoikoaren aldia eldu zanean, Nazaret'eko Birjiñaren bayetzak miraria egin eban: Jaungoikoaren betiko Seme Beragan aragi egin zan.

Lukas deunaren Ebanjeliotik. I, 26-33:

«Seigarren illebetera Jaungoikoak Gabirel aingerua Nazaret eritxon Galilea'ko urira bialdu eban neskatiilla (birjiña) bategana, neskatiilla au, Jose eritxon Dabid-en etxeko gizon bati ezkontzeko berba emon eutsona zan, eta birjiñaren izena, Maria.

Eta bera egoan tokian sartu eta auxe esan eutson:

—«Poztu zaitez, graziaz bete ori, Jauna da zugaz.»

Berbok entzunik, Maria ikaratu egin zan, eta arelako agurra zer izan zeitekean erabillen buruan.

Eta aingeruak esan eutson:

—Ez izan bildurrik, Maria, Jaungoikoaren aurrean grazia aurkitu dozu-ta. Sabelean semea sortu ta egingo dozu, eta izena Jesus ezarriko dautsozu. Aundia izango ta Bera, eta Gorengoaren Seme dei egingo dautsoe, eta Jaungoiko-Jaunak Aren Aita Dabid'en errege-jarlekua emongo dautso. Jakob'etxeko errege izango da betiko eta Aren erregetzat ez dau azkenik».

Batikano'ko II'gn Eleiz-Batzar Nagusiaren Eleizagazko Agiritik
57. zenb.

Gizakundea ezkerotik eta betiko, Maria bere Semearen arazorako eskiñi zan, Jaungoikoaren itza ondoen entzun eban Maria'ren ondoan, Jauna ikusten ikasi bear dogu.

«Salbameneko egintzan Ama ta Semearen batasuna sorkunde garbitik Kristo'ren eriotzaraño agertzen da: eta lenengo Maria oso iraduz Isabel ikertzera doanean, Isabel'ek agurtu egiten dau, agintako salbamenean agertzen daben ziñesteagaitik, eta aurrelariak pozez ikotika egiten dau» (Luk, 1, 41-45). Bere amaren-sabelean; eta Jaiotzean, Jaungoikoaren Ama pozez graziaz be-teak, artzañei ta Aztiei bere len-semea erakutsiaz, gitxitu bea-rean bere birjintasuna oso opaldu eban.»

Itzari erantzuna

Eskari-Eskariak

Eleizaren alde:

Gizon guztiei jarrabidea emen dagien Jaungoikoaren guraria lau, apal eta adoretsu ontzat artu dagian.

Ziñesten ez dabenen alde:

Apaltasunez Jaungoikoaren Itza aintzat artzeko eran jarri daitezana.

Nekepean diranen alde,

Jaungoikoaren Itzean uste ipiñiaz, aitu ezarren be, euren neke-samiñari abegi ona egin dagioen.

Gu guztion alde,

Bizitzako illuntasunetan, Jaungoikoaren Itza aurkitu da-gigun, eta Maria'ri jarraituaz aintzat artu dagigun.

Aita errukitsua,
aingeruaren iragarteagaz Maria Birjiñaren erraietan
zure Semeak aragi artutea lortu senduana,
gure eskariak entzun egizuz, eta Maria Jaungoikoaren
Ama autortzen dogun ezkerro, bere bitartekotasunaren
laguntza jaritxi egiguzu.
Jesu-Kristo gure Jaunaren bidez. Amen.

Kristiñau-Bizitzako Erabagia:

Jaungoikoaren Ama izateko, Maria'k Jaunaren ontzat artu
bear izan eban.
Jaungoikoa adituten ez gaitzez alegindu.
Abegi onez onartu dagigun, baita onartu dagiguzan gure
bizitzako gora-berak eta gure bizitza.

Andra Maria'ri geure burua opaltzea

Begoña'ko Birjiña! Andere ta gure Ama!
ni osoan eskintzen naitzuz;
eta neure semekoi maitasuna agertzeko,
egun onetan neure begi, neure belarri,
neure min ta neure biotza, eskintzen dautzudaz,
itz baten neure izate guztia.
Zeurea nazan ezkerro., Ama on orrek, zeure gauza lez,
zaindu ta aldeztu nagizu.



Gizonok mundua aldatzeko amesetan beti bizi izan gara, mundu bat ohea, gizakoi eta abegitsuagoa, Baña ia beti jo ta uts egin dogu.

Mundu bizigarri bat egiteko indar bakarra Espiritu Santua da. Bera bakarrik da gai gizonaren gurari ta itxaropenak, Espiritu Santua sua danez, gizona ondatzen dabena erretan dabelako.

Maria, lenengotatik Jaungoikoaren Espirituak bete eban; eta bere zeregin aldatzalleak beti jarraitzen dau. Gaur be, bere bizitzan balio daben gauzen billa dabizenen biotzetan, lan egiten dau lur onetako ibiltaldi onetan oneskero betikoak dira-ta.

Eskari-Deia

Zure babespean jarten gara, Begoña'ko Jaungoikoaren Ama
[deuna,
Bearrizanean dagozan zeure semeen eskariak entzun egizuz,
eta galbide guztietatik jagon gagizuz.
O, Birjiña aintzatsu ta zorioneko orrek!

Jaungoikoaren Itza

Gizon egindako Jaungoikoaren eskutapenean egite bik jotzen dabe: Espiritu Santuarenak eta izakiaren aukeramenak. Maria, Espirituaren eskuetan auxe bakarrik izan zan: apaltasuna, ezeukitasuna ta onartzea. Orixe dala-ta, Espiritu Santuak Maria'gan gauza arrigarriak egin al izan zituan.

Lukas deunaren Ebanjelistik. I, 35-38:

«Aingeruak auxe erantzun eutson: Espiritu Santua etorriko da zugana eta Gorengoaren indarrak bere gerizaz estalduko zaitu, orregaitik zugandik jaioko dana santu izango da, eta Jaungoikoaren seme dei egingo dautsoe. Begira zure senide Elizabet'ek zartzaroan seme bat sortu dau, eta sabelagor dei egiten eutsoen seigarren illebetea be bada oraingo au, Jaungoikoarentzat eziñik ez dago-ta.»

«Maria'ak auxe esan eban: Ona emen Jaunaren mirabea, egin bedi nigan zeuk diñozun lez. Eta aingerua Maria itxi ta joan egin zan.»

Batikano'ko 2'gn Eleiz-Batzarraren Eleizatzazko Agiritik. 59 z.

Maria'k Espiritu Santuari eutson zintzotasuna, Bere bizitza guztian zaindu eban. Egun bakotxa eta une bakotxeko lan gogor eta beti'-betikoan, Birjin zintzoak egun baten esan eban «bai» esaten yarraitu eban.

«Kristok agindutako Espiritu Santua ixuri aurretik Jaungoikoak gizonaren Salbamena andikiro agertu gura izan ez eban ezkerro, Apostoluak Pentekoste egunaren aurretik guztiak batera ototzean ziarduela ikusten doguz, emakumekaz eta Jesus'en Ama Maria ta Aren arrebakaz (senideakaz) batera (Apost. Egiñak, 1, 14). Maria'k be, Gizakundeak bere gerizagaz estaldu eban Espiritu Santuaren emaitz edo doia eskatzen eban.»

Itzari erantzuna

Eskariak:

Eleizaren alde:

lurreko bazter guztietara maitasuna, adizkidetasuna ta anaitasuna eroan dagizan.

Gaurko eguneko apostoluen alde:

Espiritu Santuaren suak bultzatuta alde guztietan azaldu dagien, munduko auzien erabagia alkarrenganako maitasuna dala.

Bakarrrik dagozanen alde,

ikusi dagien euren bizitzan adizkide ta maitekor eurokaz gagozala.

Gu guztion alde,

gure biotza Jaungoikoari idigita, bearreko dan gauza bakarra maitatzea eta Jesus'ek lez maitatzea dala.

Otoia:

Aita on-ona,

Espiritu Santuagaz batera Ama Birjiña zeure Semearen bizileku egokia izateko gertau zenduana, bere pozik gomutatzean, bere bitartekotasunez gatx guztietatik eta betiko eriotzatik arren! zaindu gagizuz. Jesu-Kristo gure Jaunaren bidez.

Kristiñau bizitzako erabagia:

Jauna'k diño auzi guztien erabagia maitasuna dala.
Baña guretzat sarritan, auzi guztien ebatzea diruan billa-
tzen dogu.

Kristo'ren eretxikoa noraño zarean gogoratu egizu.

Andra Maria'ri geure burua opaltzea

Begoña'ko Birjiña! Andere ta gure Ama!

ni osoan eskintzen niaitzu;

eta neure semekoi maitasuna agertzeko,

egun onetan neure begi, neure belarri,

neure min ta neure biotza, eskintzen dautzudaz,

itz baten neure izate guztia.

Zeurea nazan ezkeror., Ama on orrek, zeure gauza lez,

zaindu ta aldeztu nagizu.



Maitekeria, atsegiña, norberekeri ta andigurea nagusi diran gurealako mundu oneri, gauza batzuk aitutea gatx egiten jako. Birjintasuna, garbitasuna, maitasuna... Askorentzat orrek ez dau zentzunik, ezezko zerbait da. Orretan bizitzaren ezaugarri bat ikusteko gai be ez diran arren, Jaungoiko ta gizonakazko eskintza orretantxe dago.

Baña Jaungoikoaren bideak ez dira gureak. Gizon egi-tean birjintasuntasuna aukeratu eban. Eta Maria beti Birjiña izan zan.

«Zorionekoak biotz garbidunak». Maria'ren antzera eurok argitaratuko dabe, bide barri bat, argitsua ta yoria. Au benetan maitatzen dakienak bakarrik ulertu daikie.

Eskari-Deia

Zure babespean jarten gara, Begoña'ko Jaungoikoaren Ama
[deuna,
Bearrizanean dagozan zeure semeen eskariak entzun egizuz,
eta galbide guztietatik jagon gagizuz.
O, Birjiña aintzatsu ta zorioneko orrek!

Jaungoikoaren Itza

Israel'go erregearen itxaropena indarrean eta al izatean dago. Ezin aitu benetako itxaropena umetxo baten egoala, iñori kalterik ezin egin leikiona, eta Birjiña dan Amagandik jaioa. Auxe da Jaungoikoak guretzat aukeratu eban bidea.

Isaias Igarlearena, VII, 10-15).

«Yaube'k Akaz'eri barriro itz egin eta esan eutson:

—Eskatu zure Jaungoiko Yaube'ri ezaugarri bat, naiz Seol'eko ondarrean naiz zeru goian.

—Ez, ez dot eskatuko, Jaungoikoa ez dot zirikatuko.

—Orduan Isaias'ek esan eutson:

—Entzun, Dabid'en etxea: gitxi deritxozue gizonentzat nekegarri izatea, eta nire Jaungoikoaren be nekegarri izan gura ete dozue?

Jaungoikoak ba, ezaugarri bat emongo dautzue. Ara! birjin batek sabelean semea sortu ta argitara ekarriko dau, eta aren izena Emanuel «Jaungoikoa gugaz» izango da, gurin eta ezitia jango dauz, gatxa aldendu ta ona aukeratzen jakin arte.»

Batikano'ko 2'gn Eleitz-Batzarraren Eleizatzazko Agiritik. 63, z.

Eleizeak, gizon guztien Amak, Maria'gan beti ikusi dau eredu ta yarraibide bat. Jesus'egan ziñesten dogunok, Jaungoikoaren asmoak pozez artu bear doguz. Eta guztia maitasunaren egitea dala aituten alegindu.

«Bide zuzenez, ama ta birjin deitzen jakon Eleizaren esku-tapenean, Maria Birjiña zoriontsuak aurea artu eutson, gorengo ta bakar agertuaz, bera zala birjin eta amaren eredua. Ziñestu ta menpetasuna agertuaz, lurrean Jaungoikoaren Semea sortu eban, eta au gizonezkorik ezagutu barik, Espiritu Santuaren gerizpeak estalduta, Eba barri baten antzera, ezbai barik ziñestuaz, ez antxiñako sugeari, Jaungoikoak bialduari baño. Seme bat argitaratu eban, eta Jaungoikoak anai askoren artean lenseme ezarri eban (Erromatarrei VIII, 29) au da; ziñestedunak, euren sorrera ta azikuntzak maitasunez lankide da-ta.»

Itzari erantzuna

Eskariak:

Eleizaren alde,

norberekeri guztietatik garbituta gizon guztiakaz biotz zabaleko ta ama izan daiten.

Aita Santu ta Gotzañen alde,

gero ta geiago diru ta andiguretik aldenduaz, Jesus'en guraria dan lez biotz zabal artzain buru-ukatzalleak izan daitezcan.

Pekatarien alde,

Euren griñak eta itsukeriak itxita besteakaz geiago arduratu daitezcan.

Gu guztion alde,

geure buruak legez besteak maitetu daiguzan.

Otoia:

Aita on-ona,

Maria'ren birjintasun naroaren bidez, bizitzaren egillea
emon eta gizadiari betiko salbamenaren ondasunak
ekarri zeuntsozana, arren! eskatzen dautzugu, bere la-
guntzaren poza geugan somau dagigula.

Jesu-Kristo gure jaunaren bidez. Amen.

Kristiñau bizitzako erabagia:

Bardintasun eta denduz gauzak egitea gatxa izaten da.
Gure oldearen (instinto) menpeko izaten gara azpiratzea
gogor egiten jakulako.

Biotza gauzei ezarri barik gaur ta beti biziten alegindu
gaitezan.

Andra Maria'ri geure burua opaltzea

Begoña'ko Birjiña! Andere ta gure Ama!

ni osoan eskintzen naitzu;

eta neure semekoi maitasuna agertzeko,

egun onetan neure begi, neure belarri,

neure min ta neure biotza, eskintzen dautzudaz,

itz baten neure izate guztia.

Zeurea nazan ezkeror., Ama on orrek, zeure gauza lez,
zaindu ta aldeztu nagizu.



Neke ta samintasun barik ez da giza bizitzarik. Txarrak eta miñ eta nekeak alde guztietan bidera urtetan dausku, edozein bazterretan, kalean, zelayetan bide ukondoetan... ez da arritzekoa ba, sarritan geure burua lur jota ikustea.

Kurutzea ez da igaro, eta Kristo'ren aragi mindua, gaur egunean, beartsuak, apalak, gexoak, bakarrik aurkitzen diranak, maitetuak ez diranak...» Kristo gaur neketan dago. Miña ta mingoztasuna dagon tokian, Kristo'k il-zorian jarraitzen dau.

Maria arazo bakarrerako autua izan zanak neke ta eriotzea zer diran ba'daki. Berak asko jasan eban. Izan be, pekatuko mundu baten maitatzea—geyago, berak maite-tu eban lez—beti da neke ta kurutze».

Eskari-Deia

Zure babespean jarten gara, Begoña'ko Jaungoikoaren Ama
[deuna,
Bearrizanean dagozan zeure semeen eskariak entzun egizuz,
eta galbide guztietatik jagon gagizuz.
O, Birjiña aintzatsu ta zorioneko orrek!

Jaungoikoaren Itza

Zintzo jakozanai, Jaunak mundu onetako aintzarik ez dautse eskintzen. Jaungoikoaren naya egitea, Kristo'ren bideak aukeratzea da. Eta Kristo'ren bidea kurutzetik igaroten da.

Lukas Deunaren Ebanjeliotik. 2'gn, 33-35 a).

«Bere aita ta ama arrituta egozan Jesus'etzaz iñoenaz.

Simeon'ek bedeinkatu egin ebazan, eta Jesus'en Ama Maria'ri auxe esan eutson:

—Ume au askoren jausterako eta gorapenerako jarria da Israel'en; baita ukatuko dabenen ezaugarritzat be, eta zure arimea ezpata batez zulatuko dautzu alderik alde. Biotz askoren asmoak agirian gelditu daitezana.»

Ez jakon errez egin Maria'ri bere Seme Jesus'en bideari jarraitzea. Baña bere ziñestea ta maitasuna eragozpen guztien gañetik egon ziran. Min aldietan naiz poz aldietan Maria'k uste osoa Jaungoikoagan ipiñi eban .

«Birjiña guztiz zoriontsuak ziñestearen ibillaldian aurrera jarraitu eban eta kurutzerarte bere Semeagaz batuta jarraitu eban, etan an be, jaungoikozko erabagiz zutik egon zan (Lk.Jn. 19,25). Bere Lensemeagaz gogotsu errukitu zan, eta bere ama-biotza Aren opariagaz bat egin eban, berak sortu eban oparigaia erioztzararte maitasunez eskiñiaz.»

Itzari erantzuna

Eskariak:

Eleizaren alde,

Jaungoikoaren maitasunaren geznari izan daiten, eta jasan bear daben guztia ziñesmenagaz artu dagian.

Nekepean degozanen alde,

Jesus'en jarraibidearen pozgarria izan dagien, eta anaien maitasun-laguntza aurkitu dagien.

Besteai jasan-eragiten dautsienen alde,

Nozbait entzun dagiezan Jesus'en ikasleen gogorkeribako itz maitekorrok: «Aita, parkatu egiozue».

Gu guztion alde,

lautasunez eta ziñestez bizitzako atzekabe guztiak artu dagiguzan, eta samintasunak gora bera alaitasunez biziten ikasi dagigun.

Otoia:

Jesu-Kristo gure Jauna,

zure nekaldian Simeon'ek iragarri eban espateak zure Ama Birjiñaren arimea zulatu eban, egizu bere neke-miña gomutau eta aintzat artzean, zure Nekaldiaren ondorenak pozik lortu dagiguzala.

Gizaldi ta gizaldi guztietan bizi zaran Jesu'Kristo Zeuri eskatzen dautzugu.

Kristiñau-bizitzarako Erabagia.

Gure bizitza min eta pozen naste bat da.
Baña ba'dakigu nekeak salbau geinkezala.
Ori dala-ta, samin-aldian begia gora jaso eta esan dagigun:
«Jauna nik Zure maitasunean ziñesten dot, nire ziñesmena
geitu egizu».

Andra Maria'ri geure burua opaltzea

Begoña'ko Birjiña! Andere ta gure Ama!
ni osoan eskintzen niaitzu;
eta neure semekoi maitasuna agertzeko,
egun onetan neure begi, neure belarri,
neure min ta neure biotza, eskintzen dautzudaz,
Zeurea nazan ezkeror., Ama on orrek, zeure gauza lez,
itz baten neure izate guztia.
zaindu ta aldeztu nagizu.



Irazate, gauzak egiteko aldia ez dago amaituta. Ondiño gauza asko egin barik dagoz. Kristo'k geugan dau ustea bere salbameneko gezna aurrera eroateko. Bakotxak berari dagokiona egin bear dau.

Maria, Jesus'en Ama zeruan dago, bere gorpuak illo-biko usteltasuna ezagutu barik. Aintzatzu Kristo'gaz ikusten dogunean, uste izan bear dogu geugan be ta geure bitartez gauza arrigarriak egin gura dituala. Aintza eta itxaropenean aurea artu dauskun Maria'gaz poztu gaitazan, eta mundu obeagoaren baten alde jokatzen yarraitu.

Eskari-Deia

Zure babespean jarten gara, Begoña'ko Jaungoikoaren Ama
[deuna,

Bearrizanean dagozan zeure semeen eskariak entzun egizuz,
eta galbide guztietatik jagon gagizuz.

O, Birjiña aintzatsu ta zorioneko orrek!

Jaungoikoaren Itza

Jaunak, Maria-gan «gauza andiak» egin ebazan eta bere errukia belaunik-belaun zintzo guztietara eltzen da. Ez dozu ikusten Maria'ren abestia, gure itxaropen ziurraren abestia dala?

Lukas Deunaren Ebanjelistik (I, 41-50 a).

«Isabel Espiritu Santuz beterik gelditu zan, eta deadar andi bat egiñez auxe esan eban:

—Bedeinkatua zu emakumeen artean eta beindeinkatua zure salbelako frutua. Nor naz ni baña neure Jaunaren ama etorri dakidan? Izan be, zure agurraren abotsa neure belarritara etorriaz batea, seña (umea) sabelean saltoka asi jat.

Zoriontsua zu ziñestu dozulako! Jaunak esan dautzuna ba beteko da.

Eta Maria'k auxe esan eban:

MAGNIFICAT

Gogotik goratzen dot Jauna,
eta gaiñezka daukat pozez biotza,
Jaungoikoa salbatzaille dodala ta.
Ondo ikusi dau bere mirabe onen ezereza.
Orregaitik, zorioneko esango deuste
gizaldi guztiak emendik aurrera.
Arrigarriak egin ditu nire alde Altsua danak:
Santu dau Bere izena.
Aren errukia, bildur deutsoenentzat,
gizaldirik gizaldi doa.
Indartsu jo dau Bere besoaz,
bea joazo deutse
euren gogo-biotzetan arro ebiltzanei.
Aundikiak euren aulkietatik bera bota ditu,
eta apalak gora jaso.
Ondasunez bete ditu goseak,
eta aberatsak utsik bialdu.
Bere ardurapean artu dau Israel, bere morroia,
errukia gogoan izanik.
Alan eukan gure gurasoei aginduta,
Abrahanen eta onen ondorengoan alde».

LABAYRU-IKASTEGIA

BIBLIOTEKA - DERIO

Sarr 18.482/90

Gaia.

Tokia.

[illegible]